

Larunbatean aurkeztu zuten Oreretako XXXIV. Sagardo Eguna Arramendin. Omenaldirako tartea ere izan zen. **Imanol Saiz**

Sagardoarekin bilduko dira berriz ere

Bihar itzuliko da Oreretako Sagardo Eguna herriaren erdigunera. Hogeita hamaseigarren ekitaldia du urteko lehen festa handiak, eta goizeko nahiz arratsaldeko egitaraua prestatu dute antolatzaileek.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

«Bazen garaia». Esaldi horrekin hasi zuten Oreretako XXXIV. Sagardo Egunaren aurkezpena joan den larunbatean. Nahi, desio, itxaropen bat irudikatzen duen baieztapen laburra izan zen, azken bi urteetan birusaren erruz ez baita egin festa. Bazen garaia Oarso Bidasoko jaiak eta festak abiatzeko, eta bada garaia Oreretako Sagardo Egunaz gozatzeko. Bihar, sagardoaren inguruan bilduko dira milaka herritar berriz ere.

Antolaketa taldeak arduraz eta gogoz landu du aurtengo sagardoaren topagunea. Ohiko osagaiak dauzka (goizeko herri giroa, eta arratsaldeko txotx erraldoia), baina egotea, egitea, bada bere horretan arrakasta.

Izen propioak ere baditu sagardoaren festak: Mari Jexux Ayerza, Iñaki Artola, Nekane Dominguez eta Peio Urregarai. Aurrekoetan, eta aurtengoan ere egunaren partaide izateagatik omendu nahi izan dituzte antolatzaileek. Bejondeiela haiei, eta sagardozaleei. ×



SAGARDO EGUNA

«Plaza berreskuratzea izango da aurtengo berritasuna»



UNAI UNSUAIN ETA GORKA URRUZOLA
ORERETAKO SAGARDO EGUNEKO ANTOLATZAILEAK

Oreretako Sagardo Eguna bueltan da. Bihar sagardoak herriko hainbat txoko hartuko ditu bi urteko etenaldiaren ondoren. Unai Unsuain eta Gorka Urruzola talde antolatzailearen partaide dira.

ERIK SALAZAR

Azken bi urteetan pandemiagatik bertan behera utzi ondoren, nola dator aurtengo Sagardo Eguna?

UNAI UNSUAIN: Nobedade handiena plaza berreskuratzea da. Gogotsu gaude, baina uste dugu orokorrean ere herria gogotsu dagoela. Antolakuntza ikuspegitik elkarteak eta norbanakoak gogoz eta lanerako prest ikusi ditugu. Aurreikuspena oso ona da. Gainera, eguraldiari dagokionez, badirudi ez duela euririk egingo, beraz, Sagardo Egun potentea eta handia izango dela aurreikusten dugu.

Betiko Sagardo Eguna berreskuratu duzue, iazkoa bertsio murriztuan antolatu ondoren.

GORKA URRUZOLA: Orain dela bi urte ez genuen ezer egin. Beste formatu batekin postuak jarri genituen iaz Gamon Zumardian pixka bat girotzeko, eta kutxen salmenta egin genuen. Sagardoa eta edalontziak saldu genituen. Modu horretara, kuadrillan edo familian ospatzeko aukera izan zen. Orain dela bi urte, berriz, etxean konfinatuak ginela, balkoiak apaintzeko deia luzatu genuen. Esan genezake Sagardo Eguneko sare hori ez zela eten. Baina betiko formatua aurten berreskuratuko dugu.

Galdu zenuten hori berreskuratzea da asmoa, beraz. Herrian eta eskualdean erreferentzia den jaiari bultzada ematea.

G. U.: Taldeak lanean jarraitu du bi urte hauetan, baina egoeragatik beste formatu batzuk eraman behar izan dira aurre-

943 340 342
RADIO TAXI VITERI
ERRENTERIA
radiotaxiviteri@hotmail.com
BETIKO TAXIA
BETIKO ZENBAKIA
24 orduko zerbitzua



Unai Unsuain eta Gorka Urruzola, Sagardo Eguneko antolakuntzako kideak, arratsaldeko txotx handia egingo den eremuan. E. SALAZAR

«Deia luzatu genuen eta jasotako erantzuna inoiz baino baikorragoa izan da»

Unai Unsuain
Sagardo Eguneko antolatzailea

«Sagardogileei dagokienez, Gipuzkoatik at etortzen direnak ere badira»

Gorka Urruzola
Sagardo Eguneko antolatzailea

ra. Aurten, duela hiru urte utzi genuen leku berdinetik hartu, eta lanketa horrekin jarraitzea da asmoa.

Bada berritasunik aurtengo edizioan?

U. U.: Lehen esan bezala, guretzat aurtengo berritasuna plaza da, bai Zumardia zein Foru Plaza. Bi gune horietan egingo baita Sagardo Eguna. Berriz ere musukorik gabe egongo gara, eta elkarrekin ospatzeko aukera izango dugu. Panelak ere berritu ditugu, esaterako.

Bi urteko etenaldiaren ondoren, zaila izan al da jendea lanerako mugiaraztea?

U. U.: Oreretak elkarte gastronomiko pila ditu. Eragileei deia zabaldu eta berehala animatu ziren. Kontutan hartu behar da egunean bertan berrehun pertsona inguru behar direla egin behar diren lanak aurrera eramateko. Postuak beteta ditugu eta ordezkoen zerrenda ere egina dago. Aurtengo erantzuna inoiz baino baikorragoa izan da.

Eskualdeko lehenengo Sagardo Eguna da. Horrek ere laguntzen al du jendea erakartzeko unean?

U. U.: Hau ez da gure festa, hau eskualdeaz harago doan festa da. Gainera, aitzindariak gara Usurbilekin batera. Badakigu eskualdetik Pasaia, Oiartzun eta Lezoko jende asko etortzen dela. Baina Donostiatik, Astigarragatik, Irundik eta Hernanitik ere jende asko dator.

G. U.: Gainera, sagardogileei dagokionez, ez daude soilik udalerrikoak, baizik eta Gipuzkoatik at etortzen direnak ere badira, esaterako Ipar Euskal Herritik, Nafarroatik edo Bizkaitik.

Eta egitarauari dagokionez, zer berri izango dute Sagardo Egunera bertaratzen direnek?

G. U.: Goizeko hamaikak aldera dultzaineroak, dantzariak eta txistulariak egongo dira, giroa berotzen hasteko. Txotxa eta trikitilariak egongo dira goiz partean, eta sagardo dastaketa goizeko hamabietan hasiko da Foru Plazan, gutxi gorabehera, 14:00ak arte. Arratsaldekoa 18:00ak aldera hasiko litzateke, Gamon Zumardiko txotx erraldoia alegia, zortzi eta erdiak aldera eguna bukatzeko. ×

1986 -TIK
ATERPE
HIGIEZIN AGENTZIA
Gozatu eguna!
• Alokairuak eta Salmentak.
• Bermea + Segurtasuna.
• Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen.
Tel.: 943 52 36 94
www.aterpe.com

ONGI PASA SAGARDO EGUNA!
Beerlagun
www.oarsoak.com
UGALDETXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

SAGARDO EGUNA ERRENTERIA-ORERETA



Asier Perez-Karkamo

EGITARAUA

11:00. Herria girotzen hasiko dira trikitilariak, dultzaineroak, txistulariak... Astoek eramandako gurdia ere herritik zehar ibiliko da. Txotxa egingo dute.

12:00. Foru Plazan, goizeko txotxaren irekiera era sagardo dastaketa.

18:00. Gamon Zumardian, arratsaldeko txotx erraldoia.

SAGARDOTEGIAK

Alorrenea, Gurutzeta, Petritegi, Oyarbide, Zapiain, Irigoien, Bereziartua, Eula, Larre-Gain, Goiko Lastola, Altzueta, Otsua-Enea, Astiazaran, Akarregi, Aginaga, Urdaira, Aialde Berri, Otegi, Gaztañaga, Tximista, Añota, Eguzkitza, Izeta, Ordo-Zelai, Baleio, Egi Luze, Donosti, Egiluze Alde, Uxarte, Oianume, Llinddurren Borda, Cidrerie eta Aizkorreta.

BESTELAKOAK

Sagardo Eguneko materiala. Foru Plazako nahiz Gamon Zumardiko guneetan Sagardo Egunaren materiala salgai izango da. Material horren barruan daude: edalontzia, pintxo bat doan jateko txartela, eta Donostia sagardotegian bi pertsonarentzat otorduaren zozketan sartzeko (irabazlearen berri HITZAk emango du) balioko duen tiketa. Horien guztien prezioa bost eurokoa da.

Zapiak. Ohikoa da Oreretako Sagardo Egunean era batera edo bestera parte hartzen dutenek zapia lepoan eramatea. Antolatzaileek erabaki dute aurten horiek salgai ez jartzea, oro har herritar gehienek badutelako zapi hori. Errenteriarrei eta bisitariei eskatu diete zapi horrekin jaistea bihar kalera, herria eta eguna girotzeko.

ARKAITZA taberna
Gutxi eta maiz, umore alaiz!
Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA

Ongi pasa eguna!
Kerala - BAR -
PINTXOAK - RAZIOAK - OGITARTEKOAK
Gamon Zumardia, 12 Errenteria
943 55 86 25

SINDIKATO TABERNA
KAXUELITAK - PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
Ongi pasa Sagardo Egunean!
Madalena kalea, 38 / 943 34 61 83 / Orereta